



**Eusko Jaurlaritzako erakunde autonomiaduna**  
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco



2011N  
EGINDAKOAREN MEMORIA  
**GIZONDUZ EKIMENA**

# AURKIBIDEA

---

03

## 1 SARRERA

## 2 2011N EGINDAKO JARDUERAK

03

### 2.1 GIZONDUZEN WEBGUNEA

06

### 2.2 AITENTZAKO GIZONDUZ BIZKAR-ZORROA

07

### 2.3 PRESTAKUNTZA ETA SENTSIBILIZAZIO PROGRAMA

12

### 2.4 «GAZTEAK BERDINTASUNEAN 2.0» PROIEKTUA

12

### 2.5 PRESTAKUNTZA ETA SENTSIBILIZAZIO JARUDEREN HEDAPENA

12

### 2.6 ARGITALPEN DIGITALAK

13

### 2.7 AHOLKULARITZA

# 1 SARRERA

Gizonduz Eusko Jaurlaritzaren ekimen aitzindaria da, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak bultzatua, eta helburu du emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde gizonak kontzientziatu eta inplikatu daitezen eta parte har dezaten sustatzea.

Gizonduz terminoarekin ideia hau helarazi nahi da: berdintasunak emakumeen eta gizonen nor-tasuna osorik garatzen uzten du eta gure bizi-aukerak handitzen ditu, eta horri esker, pertsona hobekak gara, eta ondorioz, gizonak gizonago bihurtzen gara.

Ekimenaren helburuak dokumentu honetan zehazten dira: Gizonduz ekimena. "**Berdintasunak gizonago egiten zaitu**". Honako hauek dira:

- Emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde sentsibilizatutako gizonen kopurua handitzea.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren esparruan trebakuntza duten gizonen kopurua handitzea.
- Gizonek etxeko lanetan eta pertsonen zaintzan duten erantzunkidetasuna handitzea.

Nahiz eta hasieran ekimenaren iraupena 2007ko azarotik 2009ko abendura artekoa izatea pentsatu, Emakundek ekimenarekin jarraitzea erabaki zuen, Gizonduzek lehen bi urteetan izandako balioespen ona dela eta.

Gizonduz ekimenak 2007tik 2010era bitartean lortutako emaitzak dokumentu honetan jaso ziren: "**Txostena. Gizonduz Ekimena. 2007-2010 epealdia**".

## 2 2011N EGINDAKO JARDUERAK

### 2.1 GIZONDUZEN WEBGUNEAK

Berdintasunaren aldeko gizonari buruz 2008ko apirilean sorturiko webgune espezializatua ([www.euskadi.net/gizonduz](http://www.euskadi.net/gizonduz)) administratzen jarraitu da. Webgune horretan, ekimenari buruzko informazioa dago -hainbat euskarritan-, bai eta zenbait atal ere, non elkarrizketak, dokumentazioa, bibliografia, web-orrialdeetarako loturak, eta berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren kontrako Euskal Gizonen Eskutitzarekiko atxikipenak biltzeko sarbidea dauden, besteak beste.

2011. urtean 13.977 bisita egin ziren Gizonduz ekimenaren web-orrialdean, eta 40.000 orrialde bisitatu ziren. Horien artean, 9.437 bisita eksklusiboak izan ziren: % 66 lehen aldiz sartutako bisitarienak, eta % 34, lehenago ere web-orrialdean izandako bisitarienak.

Gizonduzen web-a bisitatu zutenen artean, % 88,6k Espainiako Estatutik egin zuten; gainerakoek Mexikotik (% 2); Kolonbiatik (% 1); Ekuadortik (% 0,7); Txiletik (% 0,7); Venezuelatik (% 0,7); Argentinatik (% 0,7); Erresuma Batutik (% 0,7); Perutik (% 0,6); Frantziatik (% 0,4) edo Estatu Batuetatik (% 0,4). Estatistika-txostenen arabera, esan dezakegu 5 kontinentetatik sartu direla web-orrialdean.

Espainiako Estatutik egindako bisitei dagokionez, % 24 Bilbotik egin ziren, % 15,5 Vitoria-Gasteiztik, % 10,3 Madrildik, % 8 Donostiatik, % 4 Bartzelonatik eta % 3,5 Iruñatik. Hizkuntzari dagokionez, orrialdean sartu zirenetik % 91k espainieraz egin du, % 3k euskaraz eta % 1,5k ingelesez.



01 Irudia > Interneteko edukiak > www.gizonduz.com

### 2.1.1 Bloga

Gizonduz ekimenaren blogean eztabaidak proposatzen dira, eta albisteak eta informazio baliagarria ematen da; gune irekia da, herritarrek blogean parte har baitezakete berdintasunari, gizonei eta maskulinitateei buruzko gaien inguruan iritzia emateko, eta hausnarketak eta oharak egiteko.

2011ko urtarriletik abendura bitartean, 120 sarrera egin ziren, kategoria hauen arabera sailkatuta: erakundeen ekimenak, indarkeria maskulinoak, emakumeen aurkako indarkeria, gizontaldeak eta gizonak berdintasunaren aurrean.



02 Irudia > Interneteko edukiak > Bloga

### 2.1.2 Elkarrizketak

Atal honetan berdintasunarekin zerikusia duten pertsonen egindako elkarrizketak daude. 2011. urtean, honako hauek izan dira elkarrizketatuak:

- Teresa del Valle Murga. Gizarte Antropologiako katedra duna, eta Berdintasunaren aldeko Emakunde Saria jasotakoa.
- Rafa Pérez. Deustu-San Ignazioko Modulu Psikosozialeko Emakumeen Zerbitzuko abokatu.
- Fernando Oregi. NAHIKO programaren koordinatzailea.
- Zipriztintzen. Ermuko Gizon Taldea (feminismoaren aldeko eta sexismoaren kontrako gizonak).
- Xabier Odriozola Ezeiza, maskulinitateetan aditua eta gizon-taldeen fundatzailea.
- José Ángel Lozoya Gómez, Berdintasunaren aldeko Gizonen Foroko kidea.



03 Irudia > Interneteko edukiak > www.gizonduz.com-eko elkarrizketak

### 2.1.3 Sare sozialak

Gizonduz ekimenak orri instituzional bat sortu du Facebook sarean. Orri hori sortzeko, migrazio-prozesu bat egin du edukiak lehendik zuen profiletik orri berrira eramateko. Aldiro administratu eta eguneratu da orri hori, baita Gizonduzek Youtuben eta Vimeon duen profila ere.

Nabarmentzekoa da, halaber, Sare Sozialen Erabilerako eta Estiloko Eusko Jaurlaritzaren Gida aurkezteko antolatutako ekitaldira gonbidatu zela Emakunde, Gizonduz ekimenaren barruan aipatu eremuan egin den lanaren berri emateko. Ekitaldi hori Gobernu Irekiko eta Interneteko Komunikazioko Zuzendaritzak eta Herritarren Arretarako Zuzendaritzak antolatu zuten.

Izan ere, Gizonduz ekimena izan da Facebook sare sozialean lagun gehien bildu dituen Eusko Jaurlaritzako orria: 4.860 lagun egin ditu batez beste. 371.498 bisita egin ziren, argitalpenak bistaratzeko; 535ek oharren bat egin zuten; argitalpen bakoitzeko, 590 bisita sarrerako, batez beste.



04 Irudia > Interneteko edukiak > Sare sozialak: Facebook-en orrialdea

## 2.2 AITENTZAKO GIZONDUZ BIZKAR-ZORROA

Bizkar-zorroak banatzeko ekimena 2008. urtean hasi zen, eta 2011ko otsailean amaitu da. 30.000 bizkar-zorro inguru banatu dira. Bizkar-zorroetan sentsibilizazio-materialak daude, zainketa-ekin eta aitatasunarekin lotutako gaiei buruzko jarraibideak emateko, bai eta balio ez-sexistak transmititzeko orduan aitaren irudiak duen eraginari buruz hausnartzeko ere. Materialak Euskadiko Kutzaren laguntzarekin egin baitira hauek dira zehazki: "Aitak" dokumentala, "Aitaren sekretua" ipuina, "Aitak berdintasunean" gidaliburua "Gizonak, berdintasuna eta maskulinitasun berriak" gidaliburua, "Berdinometroa" jolasa, autoan jartzeko eranskailu bat eta Gizonduz egunkaria.



05 Irudia > Prestakuntza materialak > Aitentzako Gizonduz bizkar-zorroa

## 2.3 PRESTAKUNTZA ETA SENTSIBILIZAZIO PROGRAMA

2009ko martxoan jarri zen abian Gizonduzen prestakuntza- eta sentsibilizazio-programaren lehen edizioa. 2009. eta 2010. urteetan, 140 ikastarotik gora antolatu ziren, eta 3.116 lagunek parte hartu zuten (1.665 gizonak eta 1.451 emakumek).

2011. urtean zehar, programaren hirugarren edizioan, guztira 76 ikastaro eman ziren (74 aurrez aurre, eta bi online, 60 eta 8 ordukoak); horietan guztira 1650 lagunek parte hartu zuten: % 55,6 gizonak (919), eta % 44,4 emakumeak (731).



06 Irudia > Prestakuntza materialak > Prestakuntza eta sentsibilizazio programa

### 2.3.1 Aurrez aurreko ikastaroak

Prestakuntza- eta sentsibilizazio-programaren 2009ko eta 2010eko edizioetan, 138 aurrez aurreko ikastaro egin ziren: 2.548 lagunek parte hartu zuten, guztira; 1.407 gizonak (% 55) eta 1.141 emakumek (% 45). Guztira, 711 prestakuntza-ordu eman ziren.

2011. urtean, 74 ikastaro egin dira; 293 ordu eman dira, guztira. Aurrez aurreko ikastaro horietan, guztira 1.459 lagunek parte hartu dute: % 56 gizonak izan dira (821) eta % 44, emakumeak (638). Ikasleen % 48,6k bi orduko ikastaroetan parte hartu zuen; % 10ek, 3 ordukoetan; % 34,5ek, 4 ordutik 10 ordura artekoetan, eta % 6,8k, 10 ordutik gorakoetan. 2011. urterako programatutako aurrez aurreko 4 ikastaroen artean bat bakarrik izan zen 10 ordukoa (Emakunderen egoitzan, Gasteizen), gainerakoetan ez baitzen lortu gutxienerako matrikulaziora iristea.

Hezkuntzaren eremuan: EHUko Gizarte Laneko Eskolan, hiru ikastaro egin ziren, 6 orduz; Bilboko Solokoetxe institutuan, lau lantegi egin ziren, ordubetekoak; Vitoria-Gasteizko Lantegi Eskolan ikastaro bi egin ziren, bi ordukoak; eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin, hiru ikastaro antolatu ziren irakasleentzat: horietatik batek bakarrik izan zuen gutxienerako matrikulazioa; Bilbon egin zen, hamar orduz.

Erakunde publikoen jarduerari dagokionez, bi orduko hamaika ikastaro antolatu ziren Vitoria-Gasteizko Udalarekin. Bi orduko lau ikastaro antolatu ziren, adinekoren zentroetan, eta gizarte etxeetan, trebetasun eta berdintasunari buruzko ikastaroa, eta aita-amentzako ikastaroak. Vitoria-Gasteizko Udalarekin, "Norabide" etorkinentzako zerbitzuaren bitartez, lau orduko ikastaro bat antolatu zen. Alegría-Dulantzikko Udalarentzat, bi orduko sentsibilizazio-saio bat antolatu

zen; Zallako Udalarekin hamar orduko ikastaro bi antolatu ziren, bi ikasketa-zentroentzat; eta Zumarragako Udalarekin bi orduko hiru ikastaro, udalerriko guraso-elkarteekin.

Aretxabaletako Udalarekin bi orduko hitzaldi bat antolatu zen, eta Ermuko Udalarekin, zortzi orduko ikastaro bat, funtzionarioentzat. Barrikako Udalarekin bi orduko prestakuntza-saio bat antolatu zen.



07 Irudia > Aurrez-aurreko kurtsuak

Gazteen Euskal Behatokiarekin, hamabost orduko ikastaro bat antolatu zen, eta Eusko Jaurlaritzako Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzarekin bost orduko prestakuntza eman zen, Ertzaintzako agintariekin. Eusko Jaurlaritzako Garraio Sailarekin eta Euskotrenekin, bost orduko ikastaro bi antolatu ziren.

Bizkaiko Aldundiak bere langileentzat hamabi orduko ikastaro bat antolatzen parte hartu zuen. Basauriko Espetxe Probintzialak ere zortzi orduko ikastaro bat antolatu zuen presoentzat.

Halaber, elkarte batzuekin ere ikastaroak antolatu dira. Esaterako, Lutxana elkartearekin antolatutako hiru ikastaroak, sei ordukoak, eta Santurtziko "Gizatiar" elkartearekin antolatutakoa, bi ordu eta erdikoa. ONGDS koordinakundeko gizon-taldearekin hiru orduko ikastaro bat antolatu zen. Prestaturik elkartearekin hiru ikastaro antolatu ziren, hamabi orduz guztira. Uhezi-rekin bi orduko ikastaro bat antolatu zen. Zubietxe elkartearekin lau orduko bi ikastaro antolatu ziren, etorkinentzat.

Bizkaiko Saskibalo Federazioarekin eta ASFEDEBI elkartearekin bost orduko bi ikastaro antolatu ziren, entrenatzaileentzat eta arbitroentzat. Peñascal fundazioarekin bi ikastaro antolatu ziren, eta Zumarragako Gaztetxearekin, bi orduko bat.

Suspergintza elkartearekin sei orduko ikastaro bat antolatu zen, eta Etorkintza fundazioarekin, hogeitau orduko bat. Erandion ere hiru orduko ikastaro bat antolatu zen elkarte batentzat. Zamudioko Ingeteam enpresarekin hiru orduko lau ikastaro antolatu ziren langileentzat. UNA kontsultoretzarekin ere sei orduko bi ikastaro egin ziren.

Zumarragako Bellota enpresarentzat bost orduko ikastaro bat antolatu zen, laneko arriskuen prebentzioaren inguruan. BETEAN eta ATE enprekin lau orduko lau oinarrizko ikastaro egin ziren.



ESK sindikatuarekin zortzi orduko bi ikastaro antolatu ziren; UAGA sindikatuarekin bost orduko ikastaro bat egin zen, eta ERNE sindikatuarekin hamar orduko prestakuntza-saio bat.

Ikastaroen balioespenari dagokionez, parte hartu zutenen % 91k baliagarritzat jo ditu bititza pertsonalerako, eta % 76k bititza profesionalerako ere bai.

Bestalde, beste erakunde batzuek antolatutako sentsibilizazio-jardueretan parte hartu du Emakundek. Horien artean honako hauek nabarmendu daitezke:



08 Irudia > Aurrez-aurreko kurtsoak

- Maskulinitate eta Ekitateari buruzko Kongresu Iberoamerikarra, Homes Igualitaris-Ahige Catalunya elkarteak antolatua, Bartzelonan.
- «Gizonak berdintasun-garaietan» jardunaldiaren antolamendua eta gizarte- eta erakunde-ekimenen mahai-ingurua. Deustu-San Ignazio Modulu Psikosozialak antolatu zuen jardunaldia, Bilbon.
- Kontzilioari eta erantzukidetasunari buruzko lan-mahaia, Genero Berdintasuna Eraikiz Jardunaldiaren barruan. Bizkaiko Batzar Orokorrek, Bizkaiko Foru Aldundiak, Bilboko Udalak eta Bilbao Bizkaia Kutzak antolatu zuen jardunaldia, Bilbon.
- Bergarako Udalak erantzukidetasunari buruz antolatuko jardunaldia.
- «Gizonezkoen rola genero berdintasunaren alorrean» hitzaldia, Gautegiz-Arteagako Udalak antolatua.
- Maskulinitateak eta Giza Garapena jardunaldia, Euskadiko GGKE Koordinakundeak antolatua.
- Arabako Landa Emakumeek antolatutako lan-saioa.
- «Gizonen inplikazioa eta partaidetza lortzeko estrategiak» hitzaldia, «Genero Berdintasuneko Politika Publikoen II. Kongresua 2011» ekitaldian. Kantabriako Gobernuak Emakumearen Idazkaritza Nagusiak antolatuzuen hitzaldia, Santanderren.



09 Irudia > Kongresuak

## 2.3.2 Interneteko ikastaroak

### 2.3.2.1 Online sentsibilizazioa

Ikastaro honetan, alderdi hauei heltzen zaie: genero-aldeen jatorria; sexuaren araberako rolek eta estereotipoek sozializazioan duten zeregina; eredu maskulino guztien berrikusketa; norbere buruaren zaintzak eta besteen zaintzak zer zeregin duen gizonengan; etxeko lanetan eta besteen zaintzan gizonen zer-nolako inplikazioa duten; sozializazio sexistak gizonen ere zer genero-arazo sortzen dizkien; eta indarkeria legitimatzeak zer zeregin duen identitate maskulinoen eraikuntzan.



10 Irudia > Online sentsibilizazio ikastaroa > Gizonak eta berdintasuna gida

Ikastaroak zortzi ordu irauten du gutxi gorabehera, eta eguneko 24 orduetan egin daiteke. 2009an jarri zen abian. 2009ko eta 2010eko edizioetan, 351 lagunek ongi bukatu zuten ikastaroa: 241 emakumek eta 110 gizonek.

2011. urtean, 71 lagunek bukatu zuten: 53 emakumek eta soilik 18 gizonek. Beraz, ondorioztatu daiteke partaidetzak behera egin duela, eta gizonek gutxiago parte hartzen dutela.

Online sentsibilizazio-ikastaroaren balioespenari dagokionez, parte hartu zuten lagunen % 90ek uste du ikastaroa baliagarria izan dela bizitza pertsonalerako; % 83k uste du bizitza profesionalerako ere baliagarri izan dela. Ikastaroa egin dutenen artean, bereziki balioesten dute ikastaroak duen interes orokorra, 4,9 punturekin; edukiak 4,5 punturekin; erabilitako materialak, 4, 3 punturekin, eta gaiari buruzko alde aurreko jakintza, 3, 8 punturekin (guztietan 6 puntuko eskala jarrita).

### 2.3.3 Online prestakuntza

Gizonduzek Interneten jarritako prestakuntza-ikastaroa 60 ordukoa da; lehen edizioa 2009ko irailaren 21 eta abenduaren 21 bitartean egin zen, eta bigarrena, 2010ean, egun berdinetan. Demanda handia izan zenez, 2009an plaza kopurua gehitzea erabaki zen: 60 plazatik 79 plazara; horietatik erdiak baino pixka bat gehiagok ongi bukatu zuten prestakuntza-jarduera. Ikastaroa egin ezinik geratu ziren 45 lagunek lehentasuna izan zuten hurrengo edizioan. Ikastaroaren bigarren edizioan, demandak hazten jarraitu zuen, eta, ondorioz, 138 plaza eskaini ziren. Hala eta guztiz ere, 107 lagun itxarote-zerrendan geratu ziren. Ikastaroa 138 lagunek hasi zuten, eta horietatik 76k bukatu zuten ongi: 39 emakumek eta 37 gizonek.

Emakundeko Gizonduz ekimeneko online ikastaroaren 2011ko edizioan, ikaragarri hazi zen ikastaroa egiteko eskaera: guztira 575 lagunek eman zuten izena 140 plazetarako. Estatuko autonomia erkidego ia guztietatik eman zuten izena (gehienbat, Katalunia, Valentzia, Galizia eta Asturiastik), baita 10 herrialde baino gehiagotik ere (Latinoamerikatik, batez ere). Horietatik 413 emakumeak izan ziren, eta 162 gizonak.

Hautatu ziren eta ikastaroa hasi zuten 140 lagunetatik, 80 gizonak izan ziren, eta 60 emakumeak; ongi bukatu zutenen artean, 29 emakumeak izan ziren eta 52 gizonak. Edizio honetan, Antonio García tutorearekin aurrez aurre egoteko saio bat antolatu zen: 25 lagunek parte hartu zuten, baina 60 ikasle baino gehiagok jarraitu zuten saioa, bai online zuzenean, bai Irekiaren bidez Interneten jarritako grabazioaz.



Aurrez aurreko saiora joaterik izan ez zuten ikasleentzat, foro bat gaitu zen plataforman, oharak egin ahal izateko: 70 ikasle baino gehiagok parte hartu zuten, eta 111 iruzkin egin zituzten.

Parte hartu zuten ikasleek azken ebaluazio bat egin zuten: nabarmentzekoa da lehenengo edizioan, % 100ek baliagarritzat jo zuela bizitza pertsonalerako, eta % 84k bizitza profesionalerako; 2010eko edizioan, berriz, % 98k eta % 94k, hurrenez hurren.

Ikastaroaren balioespen orokorra ere nabarmentzekoa da: 2009an 8,3tik gorakoa izan zen; 2010ean, 8,5koa, eta 2011n, 9koa, 10 puntuko baremoan.

Ikasleen jatorriari dagokionez, ikastaroaren lehen edizioan % 37 Arabatik etorri zen, % 37 Bizkaitik, eta % 8 baino ez Gipuzkoatik. Gainerakoa, % 17, Estatutik. Bigarren edizioan, % 62 Bizkaitik etorri zen, % 13 Arabatik, eta % 10 Gipuzkoatik; % 8 Estatutik, eta % 8 batez ere Latinoamerikatik. 2011ko edizioan, matrikulatutako % 11 Arabatik etorri zen, % 3 Gipuzkoatik, eta % 29 Bizkaitik; eta % 54, Estatuko lurraldeetatik.

Ikasketa-mailari dagokionez, ikastaroa bukatu zutenen artean, % 60k goi mailako unibertsitate-prestakuntza zeukan; % 29k, erdi mailako unibertsitate-ikasketak, eta % 9k, doktoretzak. Adinari dagokionez, % 49, 33 urtetik 40 urtekoa zen; % 29, 41 urtetik 50 urtera artekoa, eta soilik % 14, 18 urtetik 29 urtera artekoa.

## **2.4 «GAZTEAK BERDINTASUNEAN 2.0» PROIEKTUA**

EJIE, SA sozietate publikoarekin lankidetzan, Gazteak Berdintasunean 2.0. izeneko proiektua diseinatu eta haren alderdi teknikoak zehaztu dira. Proiektuaren xedea da nerabe eta gazteen kontzientziazioa eta inplikazioa bultzatzea, eta, bereziki, gizonezkoena, emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontra egin dezaten. Horretarako, teknologia berrietan oinarritutako hezkuntza-tresna berritzaileak baliatuko dira.

Proiektua 2012. urtean ezartzea aurreikusten da, eta 3 plataforma izango ditu:

- Informazio-web edo «erakustoki» bat: proiektuaren garapenari eta faseei nahiz proiektuan lanean ari diren erakundeei buruzko informazioa emango du.
- Online egin daitekeen abentura grafiko bat (bideojoko bat): erabiltzaileei egoera-aukera batzuk emango dizkie, froga jakin batzuk egin eta erabakitzeko, hau da, zenbait aukera hautatu ahal izango dituzte egoera sexista, homofobo, bortxazko eta antzekoen artean.
- Komunitate birtual bat: partaidetzarako eremuak sortuko ditu, eta nerabeen arteko komunikazioa indartuko.

## **2.5 PRESTAKUNTZA ETA SENTSIBILIZAZIO JARUDEREN HEDAPENA**

Zenbait jarduera hedatu dira (besteak beste, unibertsitateko master eta graduondokoak, berdintasunari buruz IVAPEk emandako ikastaro espezifikoak, eta Berdintasunerako Guneko jarduerak), aipatu prestakuntza- eta sentsibilizazio-jardueretan gizonen gehiago parte har dezaten laguntzeko. Horretarako, horien berri eman da Gizonduz webgunearen eta aldizkari elektronikoen bidez.

## **2.6 ARGITALPEN DIGITALAK**

«Gizonduz ekimenaren jarduera-memoria, 2007-2010» egin eta argitaratu da. Memoria horretan zehatz-mehatz aztertzen dira Gizonduz ekimenaren barruan abian jarri zenetik egindako jarduerak, eta ekimeneko neurrien eta helburuen betetze-maila.

“Maskulinitateak eta berdintasuna: jakintza-alor anitzeko azterketa” dokumentu digitala ere argitaratu da. Dokumentu hori ikuspegi pertsonal edo profesional batetik gizonen balioetan eta portaeretan sakondu nahi dutenentzat da, berdintasunari eta maskulinitateei buruz gehiago jakin nahi dutenentzat, eta hainbat gaitan sakondu nahi dutenentzat (osasuna, zaintza, giza eskubideak, indarkeria maskulinoak, emakumeen aurkako indarkeria, bide-segurtasuna edo toxikomanien eta kriminalitatearen prebentzioa).

## **2.7 AHOLKULARITZA**

Azkenik, aipagarria da 2011n 150 kontsulta erantzun zirela Gizonduz-i buruz eta gizonak, berdintasuna eta maskulinitateen inguruko beste gai batzuei buruz, e-mailez, telefonoz eta aurrez aurre.

**Vitoria-Gasteiz, 2012ko apirilaren 11.**



MANUEL IRADIER, 36  
01005 VITORIA-GASTEIZ  
**TEL** 945 01 67 00  
**MAIL** [emakunde.gizonduz@ej-gv.es](mailto:emakunde.gizonduz@ej-gv.es)